

## igeldo

Olasagastik eta Arrospidek abenduaren 10ean jokatuko dute aizkora apostua. Joan den asteartean, azaroak 7, bildu ziren biak Tolosako Kantabriko tabernan eta tratua egin zuten. Bakoi-tzak milioi baina pezeta jarriko ditu jokoa eta 80 ontzako zortzi enbor lehenago mozten dituenak irabaziko du. Lekua erabaki gabe dago oraindik, Arrospidek Tolosako zezen plazan jokatu nahi du, Igeldokoak berriz, Donostiako Konstituzio enparantzan K.T.E.k erraztasun handiak eman baitizkio.

Lehendabiziz neurtuko dituzte euren indarrak apostu batean, orain arte elkarren aurka txapelketetan bakarrik aritu baitira. Leaburukoak 39 urte ditu eta azken sei urtetan lortu du Euskadiko Txapela. Jose Marik 36 urte ditu eta sei aldiz izan da azpitxapelduna, 1987, 88, 90, 92, 93 eta 94 urteetan. Zaletuek aposturako aukera izango dute, patrikak bete edo hustutzeko. Igeldon denetik egongo da seguraski.

ALEX AISA (TFNOA.: 210568)

# Olasagasti-Arrospide nor baino nor gehiago



Olasagasti  
igeldoarrak  
lehia  
gogorra  
izango du  
abenduaren  
10ean.

## altza

«**Abiadura Handiko Trena?** Altzatik ez dira Pasako! informa zaitez» lemapean Altzako Gazte Asanblada eta AHTren aurkako asanbladak ekin-tza ugari antolatu dituzte aste honetarako, besteak beste, erakusketa informatiboa kultur etxean, bideo emanaldia, eztabaidak, kalejira errebindikatiboak, kontzertuak eta mendi ibilaldiak.

AHTren aurkako asanbladak, trenak Donostialdean izango duen eraginaz informatu nahi ditu altzatarak. Besteak beste

Urumea ibarraren suntzitzea eta Lau Haizetako inguruarekiko eraso gogorra salatzen dituzte.

«**Hiesaren aurkako irudiak**» titulupean kanpaina mugikorra antolatu dute Altzako Kale Hezitailleek, Oiartzungo Harri-Beltzak, Casares Kultur Etxeak, Udal Gazteria Sailak eta Altzako gazteek. Altzako Txapineko Las Torres tabernan egongo da ikusgai erakusketa. Gainera, kanpaina honekin batera «Baikor bizi» filmearen emanaldi

jarraiak eskeiniko dira.

**Altzako Gazte Le-kuan** hasi da dagoeneko, datorren abendura arte iraungo duen «serigrafia» ikastaroa. Bertan, pantailen eraikuntza eta prestaketa, koloreen nahasketa eta koloreen erregistroa ikusi ahal izango dira. Serigrafia ikastaroan parte hartu nahi duena hurbil bedi Altzako Gazte Leku-  
ra 18.00etatik 20.00etara astelehen eta asteazketan.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

BAGERA / IRUTXULO

## KAMISETAK

*Esberua ezazu  
zurea!!*

Kolore, tamaina eta modelo desberdinak ditugu. Salneurria: 1.200, 1.500 eta 1.700 pezeta.

Helbidea: Aldamar kalea eta Pasealeku Berriaren izkina • Tfnoa.: 43 12 28